



Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak onartu duen danborradaren antolaketa arautuko duen araudia.

Hona hemen danborrada antolatzen duen batzordeko pertsonekin aztertu eta adostu den araudia eta beraz, aurrerantzean indarrean jarriko dena:

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLAKO DANBORRADAKO ARAUTEGIA

Umeen danborradak garrantzia handia dauka Donostiako patrioiaren festan eta, beraz, Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteak ikastolako haurrek jai horretan parte hartzea bultzatuko du.

Donostiako haurren danborradan parte hartzeko ekimena, Arantzazuko Ama Ikastolari dagokionez, Guraso Elkarteak antolatuko du. Guraso Elkarteak azpibatzorde bat sortuko du danborradaren inguruko lanak burutzeko. Azpibatzordea gutxienez sei pertsonak osatuko dute.

Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari dagokio danborradaren arautegia onartzea eta beharrezkoa denean aldatzea. Halaber, Zuzendaritza Batzordeari dagokio danborradaren inguruko erabaki nagusiak eta gastu orokorra onartzea.

Danborradako azpibatzordearen egitekoa da, besteak beste, danborrada antolatzea, deialdia egitea, arropa eta danborrez arduratzea, entseguak antolatzea eta danborradaren eguneko antolamenduaz arduratzea.

Danborrada ondoren datozen arauen argitara antolatu eta bideratuko da:

1-PARTE HARTZAILEAK:

Donostiako danborradan Arantzazuko Ama ikastolako konpainia batek parte hartuko du. Traje kopurua dela eta, bertan parte hartuko dutenak LH 1, 3, 4, 5, 6 eta DBH ko 1 eta 2. mailako ikasleak izango dira.

Izen emandako haurren kopurua plaza kopurua baino handiagoa baldin bada, zozketa egingo da, beti ere honako taldeen lehentasuna ziurtatuz: LH1, LH3 eta LH5. Beraz, aipatutakoen parte hartzea ziurtatu eta ondorengoan artean egingo litzateke zozketa: **LH2, LH4, LH6, DBH1 eta DBH2.**

Izen emate honen ondorioz, eta beti ere traje kopuruen arabera, Astigarragako Herri Eskolara luzatuko da deialdia eta bertan izen emate gehiago izan ezkeru hauen artean zozketa egingo da.

2-LEHENTASUNAK

Abanderatu 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Danbor nagusi 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Barril nagusi 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Danbor zuzendari 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Barril zuzendari 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Barril kabo 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Danbor kabo 1

LH5, LH6 edo DBH1eko ikasle bat.

Kabo gastadore 1

LH 1eko ikasle bat.

Maila horietan hautagairik ez baldin badago LH 2 ikasleengana joko da.

Kantinerak

LH 1eko ikasleak

Gehiago behar badira LH 2ko ikasleengana joko da eta zozketa egingo da.

Abanderatuarekin joango diren bi kantinerak hautatzeko ere zozketa egingo da.

Gastadoreak

Kantinerak hautatzeko prozedura berberarekin hautatuko dira.

Danborrak

LH 3ko ikasleak

Gehiago behar badira LH 4ko ikasleengana joko da eta zozketa egingo da.

Barrilak

LH 5 eta DBH 1eko ikasleak

Gehiago behar badira lehentasun hauekin hautatuko dira: LH 6 eta DBH 2.

3- IZEN-EMATEA ETA HAUTAKETA

Danborrada Batzordeak deialdia egingo du parte hartzeko izena emateko. Deialdia egingo zaie maila guztiei (LH 2, DBH 3 eta DBH4 mailetako ikasleei izan ezik).

Izena emateko orri bat bete eta Ikastolako Idazkaritzan aurkeztu beharko da. Orri horretan, izen-abizen eta kontakturako datuez gain, adierazi behar da karguetan parte hartu nahi den ala ez.

Izena emateko epea amaitu ondoren, Batzordeak zenbaketa egingo du eta danborradako plaza guztiak ez direla betetzen ikusten bada, deialdia LH 2ko ikasleei egingo die eta, horiekin ere betetzen ez bada, **Astigarragako Herri Eskolara zabalduko da.**

Parte hartzaileak hautatzeko egin beharreko zozketa guztiak lehen entsegu egunean egingo dira. Zozketa publikoa izango da eta gurasoen eta parte hartzaileen aurrean egingo da. Karguak eta karguen ordezkariak ere zozketa bidez izendatuko dira.

Karguren bat tokatzen zaion haurrak ezingo du hurrengo urteetan karguetan parte hartu. Gaur egun arte karguren bat bete dutenek ere ezingo dute beste kargurik bete aurrerantzean.

Donostiako Udalak antolatzen dituen ekitaldietara joan behar duten haur ordezkariak ere zozketa bidez hautatuko dira. Zozketa horiek ere publikoak izango dira. Hauetakoren batek ekitaldietara joaterik ez balu, aurrez izendatutako ordezkariak joango lirarteke.

4-HAURREN KOKAPENA

Konpainiaren barruan haur bakoitzak duen kokapen zehatza Danborradako Batzordeak finkatu eta erabakiko du. Aldaketak ere batzorde horrek erabakiko ditu, aurrerago edo atzerago kokatzeko irizpide gisa haurrek jantziak jarrita hartzen duten altuera izanik.

Parte hartzen duten haurren gurasoek ezin dute inola ere gisa horretako erabakietan parte hartu.

5-JANTZIAK

Jantzien tamainak ezingo du baldintzatu haurren partaidetza; ezingo da haurrik diskriminatu bere fisikoa dela eta. Beraz, karguen jantziarako txikiegiak diren jantziak tamaina handiagoan egitea proposatzen da, haurren gorpuzkeraren arabera bi tamaina aukeran izateko.

Danborradaren eguna baino 15 egun lehenago jasoko du haur bakoitzak bere jantzia. Haurren gurasoei dagokie jantzi horiek egokitzea eta prestatzea eta itxurarik onena izatea.

Zapatak beltzak edo urdin ilunak izango dira.

Behin desfilea bukatuta, bakoitzak bere jantzia gorde egin behar du. Danborradako Batzordeak esango du noiz, non eta nola entregatu behar diren.

Danborradan parte hartzen duten haurren gurasoen ardura da jantziak hartu zirenean bezala (egoerarik onenean) itzultzea. Danborradari dagozkion materialak (txanoak, lumak, makilak, jantziak, danborrak, barrilak...) galdu edo egoera txarrean itzultzen badira dagokion kopurua ordaindu beharko da.

Danborradako Batzordearen ardura izango da jantziak jaso, gainbegiratu eta gordetzea.

6-PREZIOA ETA ORDAINKETA

Danborradako Batzordeak jantzien gastuen kopurua erabakiko du. Jantziak jasotzeko ordainagiria erakutsi beharko da.

7-ENTSEGUAK

Danborradako Batzordeak finkatuko du entseguen egutegia eta idatziz jakinaraziko die partehartzaileei.

Entseguak Martuteneko egoitzan izango dira.

Entseguetara ez joateak (justifikatu gabe) edo entseguetan jarrera txar eta arduragabea izateak danborradan ez parte hartzea ekar dezake.

8- URTEKO PROPOSAMENA

Danborradako Batzordeak urtero (martxoan) hurrengo danborradaren proposamena aurkeztuko dio Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari. Proposamen horretan honakoak jasoko dira:

- Materialaren premiak (konponketak, erosi beharrekoak...) eta horien aurrekontua
- Plangintza: izen-ematea noiz eta nola, entseguak noiz...
- Bestelako proposamenak

8- ARAUTEGIAREN ALDAKETA

Arautegi hau aldatzeko eskumena Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari dagokio. Danborrada Batzordeak arautegia aldatu edo egokitzea premiazkoa dela ikusten badu proposamena Zuzendaritza Batzordeari bidali behar dio idatziz.

ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA
GURASO ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEA